



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
POLIZIAREN KONTROL ETA
GARDENTASUN BATZORDEA
KONTROL ETA GARDENTASUN
BATZORDEAREN TXOSTENA.
8-2024 ESPEDIENTEA**

**COMISIÓN DE CONTROL Y
TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS
VASCO INFORME DE LA COMISIÓN DE
CONTROL Y TRANSPARENCIA.**

EXPEDIENTE 8-2024

1.KASUAREN INGURUABARRAK

2024ko abuztuaren 29an, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak Bingen Zupiria Segurtasuneko sailburuaren idazkia jaso zuen, Erreterian eta Irunen (Gipuzkoa) izandako gertakari baten berri ematen zuena (Irungo Ertzain-etxeak 593A2403017 erreferentziako atestaturia ireki zuen ustezko atentatu-delitu bategatik), Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 17.2 artikulua betetzeko.

2024ko abuztuaren 28ko 20:00ak aldera, zirkulazio-istripu bat gertatu zen; ibilgailu batek beste batekin talka egin baitzuen eta ondoren motor-gidari bat harrapatu zuen, zaurituta utzi zuen, lurlean etzanda, eta istripuaren lekutik alde egin zuen. Ertzainak lekura bertaratu zirenean, hainbat lekukok jakinarazi zieten ustezko egilea hurbileko hotel batean gelditu zela eta ertzainek ia berehala aurkitu zuten heskai batzuen atzean ezkutatuta.

Agenteek pertsona horri eskatu zioten haiekin ibilgailura joateko eta orduan pertsona hori agente baten aurka oldartu zen eta kolpatu zuen. Borroka horretan, biak lurrera erori ziren eta, ustezko egileak gogor aurka egin ondoren, lurlean menperatzea lortu zuten, eskuburdinak jarri zizkieten eta atxilotuta zegoela jakinarazi zioten. Minutu batzuk geroago, atxilotutakoak konortea galdu zuen (eskuburdinak jarrita eta lurlean zegoela)

1.CIRCUNSTANCIAS DEL CASO

El 29 de agosto de 2024, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, recibió un escrito del Consejero de Seguridad, Sr. Bingen Zupiria, cumpliendo el artículo 17.2 de la Ley de Policía del País Vasco, en el que se informaba de un hecho acontecido en las localidades de Erreteria e Irún, Gipuzkoa (la Ertzain-etxea de Irún procedió a la apertura del Atestado de referencia 593A2403017 por un presunto delito de atentado).

Sobre las 20 hrs. del 28 de agosto de 2024, tuvo lugar un accidente en el que un vehículo colisionó contra otro para, posteriormente, arrollar a un motorista, dejándolo herido, tendido en el suelo, y abandonando el lugar del accidente. Al acudir la Ertzaintza al lugar, diversos testigos les informaron que el supuesto autor se había detenido en un hotel cercano, localizándole de manera casi inmediata escondido tras unos setos.

Tras conminar a esta persona a acompañar a los agentes al vehículo, este arremetió contra uno de los agentes, golpeándole. En el forcejeo, ambos cayeron al suelo y, tras una fuerte oposición consiguieron reducirlo en el suelo, colocándole los grilletes y comunicándole su detención. Pasados unos minutos, el detenido perdió el conocimiento (todavía engrilletado y en el suelo) por lo que fue rápidamente atendido por los servicios sanitarios que



eta berehala jaso zuen istripuaren lekura bertaratutako osasun-zerbitzuen laguntza. Atxilotutakoak bihotz-biriketako gelditze bat jasan zuen, osasun-langileek lekuan bertan gelditze horri buelta ematea lortu zuten, eta ondoren Donostia Ospitalera eramán zuten, baina ospitale horretako ZIUn ingresatu eta handik ordu batzuetara hil zen.

2.JARDUERA HAUEK EGIN DIRA

2024ko irailaren 5ean, EAEPKGBk enkargua (8/2024 espediente) onartzea eta jakinarazitako gertakari horretan Ertzaintzak izandako jokabidea edo praktika aztertzea erabaki zuen. Bilera berean, esku-hartze polizial hori ikertzeko, EAEPKGBk erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Segurtasuneko Sailburuordetzari hauek eskatzea:

a)EAEPKGBri informatzeko, Segurtasuneko sailburuak bere komunikazioan aipatzen zuen atxilotutakoaren heriotzaren kausa dela eta, ikerketa-jarduera judizialak hasi diren.

b)EAEPKGBri bidaltzeko Irungo Ertzaintzak, atxiloketa polizial hori dela eta, instruitu zuen atestatu polizialaren kopia; eta horren barruan Euskarri aplikazioko txostena ere sartzeko, atxiloketa, atxilotuaren konorte galtzea eta osasun-zerbitzuen asistentzia gertatu ziren ordu-tarteari eta lekuari dagokiena; eta osasun-zerbitzu horiek txostenik egin bazuten, horren kopia ere bai.

habían acudido al lugar debido al accidente.

El detenido entró en parada cardio-respiratoria, logrando los sanitarios revertirla en el lugar para, posteriormente, ser trasladado al Hospital Donostia en el que, tras permanecer ingresado en la UCI del citado Hospital, falleció al cabo de unas horas.

2.ACTUACIONES REALIZADAS

El 05 de septiembre de 2024, la CCTPPV acuerda aceptar el encargo (Expediente 8/2024) y proceder al estudio sobre la conducta o práctica en el seno de la Ertzaintza desarrollada en el incidente comunicado. En la misma sesión, con el fin de proceder a la realización del estudio sobre la intervención policial referida, la CCTPPV acuerda interesar de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

a)Se informase a la CCTPPV sobre la incoación de actuaciones judiciales de investigación en relación con la causa del fallecimiento de la persona detenida a la que se refería la comunicación del Sr. Consejero de Seguridad.

b)Se diera traslado a la CCTPPV de una copia del atestado policial instruido por la Ertzaintza de Irún en relación con la detención policial descrita; con inclusión en el mismo del informe editado en la aplicación Euskarri respecto del tramo horario y del lugar en los que se produjo la detención, la pérdida de conocimiento del detenido y la asistencia prestada por los servicios sanitarios, así como copia del informe que, en su caso, hubieran realizado dichos servicios sanitarios.



c) EAEPKGBri bidaltzeko, azkenean hil zen gidaria atxilotzeko jarduketa polizialaren inguruabarrak argitze aldera, Ertzaintzako Barne Arazoetako Burutzari eskatutako barne ikerketaren eginbideen kopia bat.

c) Se diera traslado a la CCTPPV de una copia de las diligencias de investigación interna encomendada a la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de las circunstancias en las que se produjo la actuación policial dirigida a la detención del conductor finalmente fallecido.

d) EAEPKGBri informatzeko pertsona hori atxilotzeko jarduketa polizialaren lekuan eta egunean bideozaintzako kamerarik zegoen, jarduketa polizial hori graba zezaketenak (erantzuna baiezkoa bada, aztertzen ari diren egintzen egunari eta orduari dagokien grabaziorik dagoen informatu).

d) Se informase a la CCTPPV si en el lugar y la fecha en la que se produjo la actuación policial de detención se encontraban instaladas cámaras de videovigilancia que pudieran haber recogido la actuación policial considerada (en caso afirmativo, información sobre la eventual existencia de grabaciones correspondientes a la fecha y hora en la que ocurrieron los hechos objeto de estudio).

2024ko irailaren 13an, EAEPKGBri eskatutako informazioa bidali zitzaion, baina Ertzaintzaren Barne Arazoetako Burutzari eskatutako barne ikerketaren eginbiderik ez.

Con fecha 13 de septiembre de 2024, se remite a la CCTPPV la información solicitada, salvo las diligencias de investigación interna encomendada a la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para su estudio.

2024ko abenduaren 30ean, EAEPKGBko bi kide pertsonalki joan ziren Irungo Ertzain-etxera, han Herritarren Babeseko buruarekin eta Instruktoke buruarekin elkartzeko, kasuaren inguruabarrei buruzko informazioa lehenengo eskutik jasotzeko helburuarekin. Berriz ere azaldu zitzaion nola jardun zuten agenteek istripuan eta Ertzain-etxean bakoitzak bere aldetik deklaratu zuela, etab. EAEPKGBk ez zuen egoera anomalorik antzeman.

Con fecha 30 de diciembre de 2024, dos miembros de la CCTPPV se trasladan personalmente a la Ertzain-etxea de Irún para reunirse con el Jefe de Protección Ciudadana y el Instructor Jefe, con el objetivo de recabar información de primera mano sobre las circunstancias del caso. Se relató de nuevo la forma de proceder de los agentes en el accidente, la declaración separada de los mismos en la comisaría, etc. No se apreció por parte de la CCTPPV ninguna situación anómala.

2025eko urtarrilaren 29an, EAEPKGBk, 8/2024 espedientearen instrukzioa amaitzeko xedez, erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Segurtasuneko Sailburuordetzari eskatzea EAEPKGBri bidaltzeko Irungo 4 zk.-ko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak

El 29 de enero de 2025, la CCTPPV acuerda, con el fin de concluir la instrucción del expediente 8/2024, interesar de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad del Gobierno



irekitako jarduketa judizial penalen egungo egoerari buruzko txostena eta, aztertzen ari den jarduketa polizialarekin lotuta jarduketa judizial gehiago ireki badira, horiei guztiei buruzkoa ere.

Vasco que se remita informe a la CCTPPV sobre el estado actual de las actuaciones judiciales penales incoadas por el Juzgado de Primera Instancia e Instrucción nº 4 de los de Irún, así como de las demás actuaciones judiciales que eventualmente hayan podido ser incoadas en relación con la actuación policial objeto de estudio.

2025eko martxoaren 18an, EAEPKGBri Barne Arazoetako Burutzak informatu zion 2025eko martxoaren 6an Irungo 4 zk.-ko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiaren ofizio bat jaso zela, informatzeko 808/2024 aurretiazko eginbideak artxibatuak izan zirela *“eginbide hauetan ikertua izaten ari zen pertsona bakarra”* hil zelako. Ofizio horren kopia bidali zen.

Con fecha 18 de marzo de 2025, se informa a la CCTPPV por parte del Jefatura de Asuntos Internos que con fecha 06 de marzo de 2025, se recibió en dicha Jefatura un oficio del Juzgado de Primera Instancia e Instrucción nº 4 de Irún informando que las D.P. 808/2024 habían sido archivadas por la muerte del *“único investigado en las presentes diligencias”*. Se remitió una copia del citado oficio.

3.JARDUKETA POLIZIALARI BURUZKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Txosten honek aztertzen duen gertakariak betetzen ditu EAEPKGB aktibatzeke baldintzak – Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu bateginaren 17.2 b) artikulua-. Erreterian eta Irunen gertatutako trafiko-istripu baten ondoren, eta handik minutu batzuetara istripu horren ustezko eragilea atxilotu ondoren, atxilotuaren bihotz-biriketako gelditzea gertatu zen eta, hasiera batean istripuagatik lekuan zeuden osasun-langileek gelditze horretatik bere onera ekartzea lortu bazuten ere, tamalez, ordu batzuk geroago hil zen Donostia Ospitalean.

3.CUESTIONES RELEVANTES A EFECTOS DE LA ACTUACIÓN POLICIAL

El incidente que es objeto de estudio en el presente informe responde al supuesto b) que, según el artículo 17.2 del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco (LPPV), motivan la activación de la CCTPPV. Tras un accidente de tráfico ocurrido en las localidades de Erretería-Irún y la posterior detención del supuesto causante del mismo a los pocos minutos, se produce una parada cardio-respiratoria que, aunque se le consigue revertir en los primeros minutos por parte de los sanitarios desplazados por motivo del accidente, desgraciadamente, fallece unas horas después en el Hospital Donostia.

Gipuzkoako Trafikoko Unitate Berezikoko agenteek herritarren eta gidarien laguntza izan zuten, baita Irungo Ertzain-etxeke patruilen laguntza ere, eginbide polizialean zein hartutako eta eginbideetara aurkeztutako irudietan jasota dagoen bezala. Gertakarian inplikaturako pertsonaren ustekabeko

Los agentes de la Unidad Especial de Tráfico de Gipuzkoa, que contaron con el auxilio de ciudadanos y conductores, así como con patrullas de las Ertzain-etxea de Irún, tal y como queda reflejado en las diligencias policiales, así como en las imágenes captadas y aportadas a las diligencias, se vieron sorprendidos por una



erreakzioak ezustean harrapatu zituen agente horiek, pertsona hori agenteetako baten aurka oldartu baitzen eta kolpatu baitzuen. Borroka horretan, biak lurrera erori ziren eta ustezko egileak gogor aurka egin ondoren lurrean menperatzea lortu zuten, eskuburdinak jarri zizkieten eta atxilotuta zegoela jakinarazi zioten.

EAEPKGBk, eskatutako bidezko dokumentazioa zorrotz aztertu ondoren, ondorioztatu du deskribatutako gertakarian ez dela jarduketa polizial irregularrik edo anomalorik antzeman. Hortaz, ezin da ondorioztatu tartean egondako agenteek zabarkeriaz jokatu zutenik.

Bizitza bat galdu da, tamalez, baina erabaki da hori ez zela agente esku hartzaileen jarduketaren ondorioz gertatu; eta beraz, ez dago agenteei jokabide ezegokia edo zabarkeriazkoa egozterik.

4.HORREN AZPIAN DAUDEN ARAZOAK

Eskura dauden dokumentu eta ebidentzia guztiak zehatz-mehatz aztertu ondoren, ez da identifikatu jarduketa polizial horren azpian arazoak daudela pentsarazten duen elementurik.

5.NEURRI ZUZENTZAILEAK

Ez dago elementurik ondorioztatzeko jarduketa poliziala prozedimendu estandarretatik desbideratu zenik edo irregulartasun operatiboren bat egon zenik.

reacción inesperada de la persona implicada en los hechos, ya que este arremetió contra uno de los agentes, golpeándole. En el forcejeo, ambos cayeron al suelo y, tras una fuerte oposición consiguieron reducirlo en el suelo, colocándole los grilletes y comunicándole su detención.

Tras una exhaustiva revisión de la documentación pertinente solicitada, realizada por parte de la CCTPPV, se concluye que no se han identificado actuaciones policiales irregulares o anómalas en el incidente descrito. En consecuencia, no se puede inferir que haya existido una conducta negligente por parte de los agentes involucrados.

Aunque se ha producido, lamentablemente, una pérdida de vida, se determina que dicha fatalidad no fue consecuencia de la actuación de los agentes participantes, por lo que no se puede atribuir a una conducta inapropiada o imprudente por parte de los agentes.

4.PROBLEMAS SUBYACENTES

Después de una revisión detallada de la totalidad de la documentación y evidencias disponibles, no se identifican elementos que sugieran la presencia de problemas subyacentes en la actuación policial.

5.MEDIDAS CORRECTORAS

No se advierten elementos que permitan inferir la existencia de irregularidades operativas o desviaciones de los estándares procedimentales por parte de la actuación policial.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 24a

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de junio de 2025

Informe aprobado en el punto segundo del orden del día 24 de junio de 2025 .

Lo que certifico en el lugar y fecha de la firma digital.